

Erakunde Esanguratsuak Berrikusteko eta Ebaluatzeko Gainbegiratze Prozesua (SREP)

Europar arrisku-profil onena duen bankuetako bat da Kutxabank

- **Balitzko arriskuak estaltzeko kapital gehigarriaren betekizuna % 1,20an mantentzen da, azken lau urteetakoaren berdina**
- **Bere CET1 kapitala % 17,68koa du; beraz, aise gaintzen du EBZk % 7,675ean ezarritako helburua**

Bilbo, 2022ko otsailaren 3an. Kutxabank Europa osoan arrisku-profil onena duen bankuetako bat da aurten ere. Hori da Europako Banku Zentralak egiten duen **Erakunde Esanguratsuak Berrikusteko eta Ebaluatzeko Gainbegiratze Prozesuaren** ondorio nagusietako bat, non erakunde ikuskatzaileak 2021ean egindako lanaren emaitza nagusiak agertzen baitira.

Urteko azterketak, ingelesezko siglen arabera SREP (Supervisory Review and Evaluation Process), erakunde bakoitzaren egoera erakusten du kapital-eskakizunei dagokienez, baita arrisku-politikari nola heltzen dion ere.

Azterketak % 1,20ko eskakizuna esleitzen dio Kutxabanki, azken lau urteetako berbera, eta **Europako batez bestekoa baino hobea**, azken ekitaldian % 2,1ekoa izan baitzen. Kalkulu horri **2. zutabeko errekerimendua** (P2R) esaten zaio, eta banku bakoitzari banaka finkatzen zaio, bere arrisku potentzialak estaltzeko behar izan lezakeen kapital gehigarriaren arabera, agintaritzak ikuskatzailearen kalkuluen arabera. Zenbat eta baxuagoa izan P2R horren helburua, orduan eta txikiagoa da identifikatutako arriskuak estaltzeko kapital gehigarria mantentzeko beharra, eta, beraz, profil hobea lortzen da.

Gainera, Kutxabankek % 11,70etik gorako **Gutzizko Kaudimen Ratioa** mantendu beharko du 2022ko martxoaren 1etik aurrera, eta **CET1** kalitate goreneko kapitalari dagokionez Europako Banku Zentralak eskatzen duen gutxieneko atalasea % 7,675 izango da.

Kutxabankek Espainiako finantza-sistemaren buruan mantentzen ditu bere ratioak. Bere **CET1 ratioa** eta Gutzizko Kaudimen Ratioa, phased-in bertsioan, % 17,68koa da. Hau da, ikuskatzaileak eskatutako CET1 **halako bi baino gehiago** du Kutxabankek. Adierazle horiek % 17,2aren gainetik daude 'fully loaded' bertsioan. Kapital-ratio horiek erruz gaintzen dituzte adierazitako eskakizunak, eta, beraz, ez da mugarik ezartzen ez dibidenduen banaketarako, ezta ordainsari aldakorrerako ere.

Azken azterketa horren arabera, Europan **gainbegiratze-profil onena** duen erakundeetako bat da Kutxabank, eta errekonozimendu edo aitortza hori Europako erakunde arautzaile eta ikuskatzaileek behin eta berriz egindako azterketetan lortutako emaitzei gehitu behar zaie, horiek berretsi dutelarik Kutxabanken arrisku-profila Espainiako erakundeen artean onena dela, eta Europako onenetako bat ere bai. EBAk behin eta berriz aitortu du Bankua kalitate goreneko kaudimen-maila handiena duen erakunde gisa Espainian.

Aurreko guztiak erakusten du hainbat erakundek duten ikuspegi positiboa, beraien araupean dagoelarik gure finantza-entitatea; erakunde horien artean daude Europako Banku Agintaritza (EBA), Gainbegiratze Mekanismo Bakarra (ECB) eta Ebazpen Mekanismo Bakarra, zeinak bermatzen duen euskal finantza-taldearen negozio-ereduaren sendotasuna, tokiko banka ardatz duena, partikularretara eta ETEetara zuzendua.

GUTXIENKO ESKAKIZUNAK		
KATEGORIA	CET1	GUZTIZKO KAUDIMENA
1. zutabea	% 4,50	% 8,00
2. zutabea (P2R)	% 0,675	% 1,20
Kontserbazio-koltxoia	% 2,50	% 2,50
Gainerako koltxoiak	% 0,00	% 0,00
ESKAKIZUNAK GUZTIRA	% 7,675	% 11,70

KATEGORIA	Egoera 2021/12/31n *	Eskakizun minimoa	Superabita
CET1 RATIOA (<i>phased-in</i>)	% 17,68	% 7,675	% 10,01
GUZTIZKO KAUDIMEN RATIOA (<i>phased-in</i>)	% 17,68	% 11,70	% 5,98

* 2021/12/31rako kalkulaturako behin-behineko datuak, Taldearen kaudimena zenbatzeko prozesu ofiziala osatzeke